

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa xehatu bati, zonakatze eta zortasun akustikoen arauetara egokitzeko

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2019ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa xehatu bati, zonakatze eta zortasun akustikoen arauetara egokitzeko.

Erabaki-proposamena

Tramitazio hau 2018ko urriaren 4an abiarazi zen, Plan Orokorra indarrean dagoen araudira egokitu behar baitzen eta, bereziki, abenduaren 16ko 1367/2007 Errege Dekretuak 11. eta 13. artikuluetan jasotako beharretara. Artikulu horiek xedatzen dutenez, plangintzek eremuko zonakatze akustikoa jaso behar dute, baita zortasun akustiko hori gauzatzeko beharrezkoak diren zehaztapenak ere.

Hauxe proposatzen da, zehazki; gainezarritako baldintzen plano bat gehitzea -(8.3) zonakatzea eta zortasun akustikoak- indarrean dagoen plan orokorreko gainezarritako baldintzen plano-multzoari, eta atal berri bat sartzea, 20.a, II. liburukiko (zonakatze akustikoa) IV. tituluko V. kapituluko (lurzoru urbanizaezinaren erregimena) 2. sekzioan, indarrean dagoen araudiaren laburpena gehituta, non berariaz adierazten baita lurzoru mota guztietarako balio duela, nahiz eta aurretiaz adierazitako kapituluan sartu den, agiriaren egitura-koherentzia mantentzeagatik.

Aipatutako plano hori Gasteizko aglomerazioaren zonakatze akustikoari buruzko txostenaren zati da - AAC Centro de Acústica Aplicada enpresak egina-. Plano horrek zonakatze akustikoa jasotzen du, barne hartuta azpiegitura nagusietako zortasun akustikoaren gune eta kalitate akustikoko helburuak, kanpoko giroan.

Proposatutako aldaketak ordenantza arautzaile berria gehitzen du, baina ez ditu lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa aldatzen, ezta baimendutako erabilerak edo eraikigarritasunak sartzeko edo aldatzeko ere; plana sektore horretan loteslea den araudira egokitzera mugatzen da, eta horrenbestez, izaera xehea du.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen-aldaketa horri dagokion proiektuaren oroitidazkian honako hauek aipatzen dira: haren xedea, ekimena, haren egokiera eta beharrezko justifikazioa eta indarrean dagoen plangintza eta aldatua, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko irailaren 6an egindako bilkuran eman zion hasierako onespena Plan Orokorraren xedapen-aldaketa horri, idatzitako proiektuarekin –dosierrean jasoa– bat etorritz.

Aipatutako erabakia 2019ko irailaren 27an argitaratu zen 112 zenbakiko ALHAOn, baita 2019ko irailaren 19an El Correo Español -El Pueblo Vasco egunkarian ere (Arabako edizioan), eta aldaketari buruzko dokumentazioa hogeitau egunetz jendaurrean jarri zen. Erakunde edo pertsona interesdunek ez dute inolako alegaziorik aurkeztu denbora horretan eta horrenbestez, izapidea-ekin aurrera jarrai daiteke.

Aplikagarri den legediari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plan orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori gauzatzeko beharrezko den gutxieneko dokumentazioa. Beraz, plan orokorraren aldaketak antzeko dokumentuetan formalizatuko dira, edukia aldaketaren xedera egokituta.

Premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak –2/2006 Legea garatzen duenak– 30. artikuluan ezartzen denaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da plangintza orokorraren aldaketaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespina ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak –Tokiko Gobernuaren Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua– 123.1.i artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorritik, dosieraren parte diren hirigintzako agiriek haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legeak abenduaren 16ko Tokiko Gobernuaren Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

Erabakia

1. Behin betiko onestea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldaketa xehatu bata, zonakatze eta zortasun akustikoen arauetara egokitzeko, Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak idatzitako proiektuarekin bat etorritik, zeina dosierrean jaso baita.
2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.
3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik.

Aldatutako arauak

II. liburukia. Hirigintza arauak Xedapen orokorrak eta lurraldearen erregimena

IV. titulua: Lurzoruaren sailkapena eta erregimena

V. kapitulua. Lurzoru urbanizezinen erregimena

2. atala: Lurzoru urbanizaezinen kategoria bakoitzerako araudia

20. atala: Zonakatze akustikoa.

4.05.83 Xedapen orokorrak.

1. Atal honetan jasotako xedapenak lurzoru mota guztietan (hiri lurzorua, urbanizagarria, urbanizaezina) dira aplikagarriak.

2. Babes akustikoari dagokionez, hirigintza-plangintza baino goragoko arauak dira Europar Batasunak, Espainiako Estatuak edo Euskal Autonomia-erkidegoak beren eskumenak tarteko emandako arauak.

4.05.84 Zonakatze eta zortasun akustikoak.

1. Lurralde baten zonakatze akustikoa eremu akustikoen mugaketan oinarritu behar da, lurzoruaren egungo erabilera eta aurreikusitakoak kontuan hartuta, zaratari buruzko 37/2003 Legeak, hura garatzen duen 1367/2007 Errege Dekretuak eta EAEko 213/2012 Dekretuak ezartzen dutenaren arabera.

2. Indarrean dagoen plan orokorraren 8.3 planoan (gainezarritako baldintzak. Zonakatzea eta zortasun akustikoak) jaso da udalerriko zonakatze akustikoa. Halaber jasotzen ditu udalaz gaindiko azpiegitura nagusien zortasun akustikoen eremuak eta jatorri naturaleko soinu-erre-serbak, eta kanpoko espaziorako (bi metroko alturan, fatxadetan) indarrean dauden kalitate akustikoko helburuak.

3. 1367/2007 Errege Dekretuak 13. artikuluan xedatzen duenez, plangintza guztiek berariaz jaso behar dute jarduteko azaleraren zonakatze akustikoari dagokion mugaketa, zein berrikusi egin beharko baita plangintza orokorrean erabilera aldaketak dakartzaten aldaketak, berrikuspenak edo egokitzapenak egiten direnean edo garapeneko hirigintza-plangintzan lurzoruaren erabilera xehatuak ezartzen direnean.

4. 1367/2007 Errege Dekretuak 11. artikuluan xedatzen duenez, hirigintza-plangintzak zortasun akustikoak gauzatzeko beharrezkoak diren zehaztapenak jaso behar ditu, eta azpiegituraren titular den administrazioak txostena egin beharko du, hasierako onespena izan aurretik.

4.05.85 Kalitate akustikoko helburuak.

1. 213/2012 dekretuan xedatzen dira atari zabaleko eta eraikinen barneko girorako indarrean dauden kalitate akustikoko helburuak, eremu akustiko desberdinetan eta eraikinen erabilera desberdinetarako.

2. 8.3 planoaren (gainezarritako baldintzak-zonakatze akustikoa) karatulan ezarri dira eremu akustiko ezberdinetako atari zabaleko kalitate akustikoko helburuak (bi metrora eta fatxadetan).

4.05.86 Inpaktu akustikoari buruzko azterlanak.

1. 213/2012 Dekretuaren 30. eta 37. artikuluek -3d artikuluekin lotuta- xedatzen dutenez, eremu akustiko batean edo zortasun akustikoko eremu batean, hirigintza-kalifikazioaren aldaketek eta hirigintza-lizentzia beharko duen obra edo eraikin bat oin berrian egitea aurreikusten den edozein hirigintza-jarduketek inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat izan beharko dute, hirigintza- eta ingurumen-izapideak egiteko. Dekretu beraren 42. artikuluan ezartzen den bezala, azterlan horrek dardara-mailaren ebaluazioa izan beharko du, trenbidetik 75 metro baino gutxiagora oin berriko eraikinak eraikitzea aurreikusten bada.

2. 213/2012 Dekretuak 30. artikuluan xedatzen duenez, azpiegitura autonomikoen zortasun akustikoko eremuetan, eragin akustikoari buruzko dokumentazioa azpiegituraren titular den administrazioari igorriko zaio, betiere, dagokion hirigintza-tresnari hasierako onespena eman aurretik, kutsadura akustikoaren erregulazioari buruzko txostena eman dezan.


4.05.87 Hirigintza-jarduerak eta eraikitzeo lizentziak.

1. 213/2012 dekretuaren 36. eta 43. artikuluek xedatutakoari jarraiki, ezingo da hirigintza-jarduerarik gauzatu hirigintza-lizentzia beharko duten oin berriko obra edo eraikinak egitea aurreikusita dagoen lekuetan, eta ezingo da etxebizitzetarako edo ospitale-, hezkuntza- edo kultura-erabileretarako eraikinak eraikitzeo lizentziarik eman, kanpoan kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez badira, salbu eta behar bezala arrazoitutako interes publikoko salbuespen-arrazoia badaude, edo babes akustikoko eremuak badira. Nolanahi ere, barruko espaziorako kalitate-helburuak bete behar dira.

4.05.88 Babes akustiko bereziko guneak.

1. 213/2012 Dekretuaren 45. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraiki, Udalari dagokio babes akustiko bereziko guneak izendatzea kalitate akustikoaren helburuak betetzen ez diren eremua akustikoetan, hiru lurzoruan edo urbanizagarrian (2012ko urriaren 16an hasierako onespena jaso zuen antolamendu xehaturekin).

2. 213/2012 Dekretuaren 46. artikuluan xedatutakoari jarraiki, babes akustiko bereziko gune izendapenak zona-plana izan beharko du eta bertan jaso kutsadura akustiko gutxitzeo emandako neurri tekniko eta ekonomikoak, eta, hala badagokio, eraikuntzen barruko kalitate akustikoaren helburuak, gutxienez, betetzeko neurri osagarriak.



Hiri Antolamenduko
BAZTEIZ
VITORIA

San Nagusia
Euzko Legearen
Bazterreko Ordenamenduaren
Bazterreko Ordenamenduaren
Bazterreko Ordenamenduaren
Bazterreko Ordenamenduaren

Zona de servidumbre acústica de carreteras
Errepledeen zor akustikoaren eremua

Zona de servidumbre acústica de carreteras (1)
 Errepledeen zor akustikoaren eremua (1)

(1) Orden Foral 578/2018, de 29 de mayo, por la que se aprueba definitivamente la Delimitación de la Zona de Servidumbre Acústica de las carreteras de la Red Foral de Alava para las que existe Mapa de Ruido oficialmente aprobado.

Zarata-mapa ofizialki onartua duten Arabako Foru Sareko errepledeen zor akustikoaren eremua zehazmizteari buru izanik onespina eman zitzaioneko maiatzaren 29ko 578/2018 Foru Aindua.

Zonificación acústica y objetivos de calidad
Zonifikazio akustikoa eta kalitate-heburuak

	Ld/L _{eqdB(A)}	Ln dB(A)
A) Residencial A) Bizilegiak	65	55
A) Residencial Futuro A) Bizilegiak, etorkizunean	60	50
B) Industrial B) Industria	75	65
B) Industrial Futuro B) Industria, etorkizunean	70	60
C) Recreativo y espectáculos C) Ahalida eta ikuskizunak	73	63
D) Tercerio D) Tertzarioa	70	65
D) Tercerio Futuro D) Tertzarioa, etorkizunean	65	60
E) Educativo, sanitario y cultural E) Hezkuntza, osasuna eta kultura	60	50
F) Infraestructuras F) Azpiegiturak	--	--
G) Espacios naturales G) Espazio naturalak	60	50

Afecciones acústicas del aeropuerto de Vitoria
Gasteizko aireportuaren zor akustikoak


- Leq día 60dB (A) actual (2)
- Leq egunez 60dB (A) egungoa (2)
- Leq día 60dB (A) desarrollo previsible (2)
- Leq egunez 60dB (A) aurreikus daitekeen garapena (2)
- Leq noche 50dB (A) actual (2)
- Leq gauez 60dB (A) egungoa (2)
- Leq noche 50dB (A) desarrollo previsible (2)
- Leq gauez 60dB (A) aurreikus daitekeen garapena (2)

(2) Orden del Ministerio de Fomento de 17 de julio de 2001 por la que se aprueba el Plan Director del Aeropuerto de Vitoria. (BOE nº 188, de 7 de agosto de 2001)

Gasteizko Aireportuaren Plan Zuzentzailea onetsi zeneko Sutsaren Ministerioak 2001ko abuztuaren 17ko Aindua. (2001ko abuztuaren 7ko BOE, 188. zk.)

8.3. CONDICIONANTES SUPERPUESTOS. ZONIFICACIÓN Y SERVIDUMBRES ACÚSTICAS
BALDINTZATZAILA GAINJARRIAK. ZONIFIKAZIO ETA ZOR AKUSTIKOAK

Fecha/Dia: 01/30/0000



Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 9an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE